


## MIREN GALARZA

## Maixtra izan gura eben botikarixia

*Herrixan egitten diran euskeriaren aldeko ekintzetan ez da arrarua Miren botikarixia parte hartzen ikustia. Aldizkari hau be oso interesgarritzat joten dauelako eztosku iñolako trabarik ipiñi elkarrizketatxo hau egitteko.*

**- Noiz hasi ziñan botikarixa lanetan?**

1948xan. Karreria akabo nebenian hillabete batzutan Zestonan ibilli nintzan lanian, hango botikarixia Afrikara monja fan zan eta. Gero, Zegaman sei bat hillabetian be egon nintzan. Azkenian hemengua traspasuan hartzeko aukeria euki neben.

**- Zeinek eukan lehen zuen botika?**

Iurritak. Lehenago Zurutzarena izan zan; honek seme bat eukan botikarixua baiña 1918xan hil egin zan gripe gaitzak harrapota eta orduan, alabia Billafrankako Iurritarekin ezkondu zan eta honek jarraitu eben botikiakin.

**- Berrogita lau urtian makiñatxo bat lan egindakua zu be...**

Bai, baiña trankil. Ez da horrenbestera. Guardixa orduak eta hola bai, baiña lan danak dakoi beria.

**- Zenbat botika egozen orduan Oñatin?**

Bi: Leturiarena eta guria; orain daguen hirugarrena, goikua, geroagokua da.

**- Zuk lanian diharduzun urte honeittan asko****aldatu dira botika kontuak?**

Bai, izugarri. Ni hasi nintzianian askoz be gehixago eguen preparaitteko: geuk gertaketan gittuan gauza asko, hautsak edo papeletak edo bixixuendakuak, eta halakuak; gero gertatuta etorten hasi ziran eta orain apenas egiten dogu ezer alde horretatik.

**- Lehengo aldian botika klase asko izango da gaur egun...**

Bai, izugarri ugaritu dira, batzuk barrixak eta beste batzuk lehenguairi egindako aldaketetatik ataratakuak.

**- Medikurengana fan barik, kontseju eske etorten xatzue jenterik?**

Bai, etorten da: *katarrua dakot eta eztaikt zer hartu. Guk esaten dostegu ba medikuak hau eta hau emuten daue.* Baiña guk be erreparau eukitten dogu batzutan, ze, badakitue, gu ez gara medikuak eta segun eta ze gauzetarako... Dana dala, gehixenetan errezetiakin etorten dira, gaiñera hori da normalena, horretarako dagoz seguruak.

**- Orain dala gutxi aldaketak egon dira honetan be, ezta? botika batzuk segurutik kendu eta holakuak...**

**L**ehen botikan gauza asko geuk preparau bihar izaten gittuan: papeletak, hautsak, bixixuendakuak...; orain ixa gehixenak gertatuta etorten dira.

Bai, kanbixua egon da, baiña hala ta guztiz be, nik pentsaiten nebena baiño hobeto geldittu da, gauza batzuk kendu dittue, jarabe batzuk, bitamina batzuk, kaltzio batzuk, baiña pentsionistak eta eztaue ordaindu bihar. Esaten zan zerbait ordaindu biharko ebeilla honeik be, baiña ez. Izan be, hainbeste urte lanian eta..

**- Guardixa egunetan lan haundixa izaten dozue?**

Ez, gu oso gutxi molestaiten gaue. Bihar biharrezkua danian etorten da jentia baiña, ez edo-

**TXINTXURRETA ELEKTRETXEA**


*Elektra instalazioak eta  
Iluminazioa*

Kalebarria, 5 • Tfnoa: 78 01 54 - 78 11 74 • oñati

**PEÑAKOBA**

Auto-Eskola

Arkitekto Lizaur • Tnoa 78 05 60  
OÑATI  
Zarugalde, 46 • Tnoa 79 29 93  
ARRASATE



1993ko UZTAILA



zein huskerixagatik.

**- Gustoko lana izan dozu botikakua?**

Bai, gustora ibilli naiz lan honetan. Gaztetan ez neben uste botikarixia izango nintzanik. Ahizpa bat maistra neukan eta gure aittaren gogua, eta neuria be bai, haren bidetik jarraiketia zan, baiña batxillerra akabo neben urtian gerriak urten eben eta gauzak okertu egin ziran.

**- Batxillerra 1936xan akabo eta noiz hasi ziañan karrerria ikasten?**

Gerra ostian. Gerra denporan oso gaizki egon giñan, beste asko lez, eta aitta kartzelan zala aittapuntuakua esan nontan zuk *Madridera fan bihar dozu botikarixa ikastera, han badakozu familixia eta.* Eta halaxe fan nitzan.

**- Baeguen beste botikarixorik zuen familixan?**

Ez, medikuak bai, aitta eta anaia, baiña botikarixorik ez. Eta gero be, illoba asko euki arren, iñork eztau hortik jo.

**- Aitta antzuolarra zan, ezta?**

Bai, Oñatira mediku etorri eta bertan ezkondu zan. Gure ama zan etxe honetakua.

**- Zenbat anai-arreba izan zarai?**

Zortzi izan gara, bost neska eta hiru mutil, eta orain sei bizi gara: anae bat umia zala hil zan eta, Josemari berriz, orain dala gutxi.

**- Gerra denboria aittatu dozu lehen; nazionalista izatiagatik asko pasau zebein orduan...**

Bai, beste batzuen antzera, guk be lau urte oso gogorak pasau gittuan. Aitta, anaia eta ahizpia kartzelara eruan zittuain. Anaia Bilbon detenidu ebein eta lehenengo Santoñan eta gero Puerto de Santamarian euki ebein. Aitta, berriz, hemen harrapo eta Donostiara eruan ebein. Mediku lizentzia be kendu egin otzain gerra ostera arte.

**- Zein ahizpa egon zan kartzelan?**

Edurne, maistria. Arabako herri txiki baten, Domaikian, eguen orduan eta setienbrian eskolak



**G**erra aurrean, hamar bat urtetan, Oñatin bertan egin ahal zan batxillerra; nik neuk 1936xan bukatu neben.

emutera bueltau zanian bere zain egozen Bitorixarra eruateko. Handik Donostiara juiziora, eta ondoren Segoviako herritxo batera bialdu ebein zigortuta. Baiña beste ahizpa bateri be, nazionalistia izatiagatik, kastigu moduan ulia moztu otzain.

**- Hala be, nazionalistak izaten jarraitu dozue eta batez be euskariari lagunketan...**

Bai, klaro, geuria nola itxiko dogu ba!

**- Zela ikusten dozu gaur egun euskeriaren egoeria?**

Lehen baiño gehixago egitten da eta gaiñera, nik uste dot kanpoko jentia hemengua baiño gehixago saiaketan dala. Nik hori dotriñan ikusten dot: guraso erdaldunak euki arren, ume danak euskeraz ondo entenditten eta egin be egitten daue. Guk berriz, euskaldunok, geure artian be, erderara samur joton dogu.

**- Dotriña aittatu dozu, katekistia be bazara, ezta?**

Bai, astian behin bosgarren mailako neskatillamutikuari dotriña emuten dostet eta oso gustora gaiñera, umiak beti gustau izan xat eta.

**- Hortik aparte zertan emuten dozu denporia lanean eztzagozenian?**

Telesibisñua apenas ikusten dot, gurago dot irakurtia. Periodikua lehenengo eta gero rebistak eta..., gehixenak lanakin zerikusixa dakoiñak, gure profesibñuan gauzak asko aldaketan dira eta jakifñian egon bihar gara.

**- Badakozu harremanik zurekin ikasittakueikin?**

Bai, oraintxe puntuan alkartu gara Madriden, karrerria bukatu gebela 50 urte bete diranian. 208 botikarixo egon giñan, izan be, gerra denporan ezin izan zalako ikasi, gerra ostian asko juntau giñan batera estudixaitten. Baiña hemendik aurrea, nola zahartuta gagozen, hiru urtetik hiru urtera, bizi garienok juntaitteko geratu giñan.

**- Badakigu biajiak gustaitten xatzula eta Manilariño be fanda zagozela...**

Bai, hala da, 1981n Frai Migel de Aozaratzta beatifikatu ebeifñian han izan giñan, Don Josemari Agirrebalzategirekin. Honk-Kong be orduan ezagutu neben. Eta Europan zihar be, eskursiño batzuk egin izan dittut, baiña Ameriketariño enaiz aillegau, nahiz eta Txilen badakogun familixia.

LENTZERIA



BARRUKO  
LENTZERIA ETA  
KORSETEGIAN  
ELEGANTZIA

Atzeko kale, 13  
Tfnoa. 78 34 44  
OÑATI

INGENIARITZA, PROIEKTU ETA INSTALAKUNTZAK

JEGASsa

GAS PROPANO ETA GAS NATURALLEN  
INSTALAKUNTZA

BEROGINTZA ETA MANTENTZEA  
OROKORREAN

San Lorenzo, 21 - Tfnoa. 78 02 65 - OÑATI



ALTUBE  
ZERBITZUAK



GAROA  
Bidaiak



IRADIER

Portu Kale, 5  
Tfnoak: 78 12 65 - 78 33 97  
FAXA 78 30 96  
OÑATI